

KULTURGINTZA KOMUNITARIOA ARNASGUNEETAN.


EKITEKO MARKO BAT ETA HAINBAT EREDU

Iratxe Retolaza

Azpeitia, 2025eko urriak 16

**ARNASGUNEAK
HIZKUNTZA
GUTXITUEN
BIZIBERRITZEAN**
Nazioarteko
Konferentzia

International
Conference on
**TERRITORIES OF
HIGHER SPEAKER
DENSITY IN MINORITISED
LANGUAGE COMMUNITIES**



KULTURGINTZA KOMUNITARIOA ARNASGUNEETAN

HIRU URRATS

❖ **KULTURGINTZA, ARNASBIDE EMANKOR.**

Hiztun aktiboak eta transmisio-erak.

❖ **KULTUR POLITIKEN ETA KULTUR EREDUEN ZOTINAK.**


Indarguneak eta ahulguneak.

❖ **KULTURGINTZA KOMUNITARIOA, HAUSPO ERAGINKOR.**

Hainbat bide eta eredu.

**ARNASGUNEAK
HIZKUNTZA
GUTXITUEN
BIZIBERRITZEAN**
Nazioarteko
Konferentzia

International
Conference on
**TERRITORIES OF
HIGHER SPEAKER
DENSITY IN MINORITISED
LANGUAGE COMMUNITIES**



KULTURGINTZA, ARNASBIDE EMANKOR

KULTURA ARNASGUNEAK DEFINITZEKO URRATSAK

❖ Arnasguneen definizioa.

- Hiztuntza gaitasuna eta hiztun profila: ezagutza, gaitasun eta erabilera datu altuak.
- Hizkuntza (eta kultura) transmisioa belaunaldiz belaunaldi.

❖ Kulturgintzaren ikuspegitik arnasguneak birpentsatu.

- Kultura ohiturak eta kultura praktikak.
- Kultura sareak eta kultura guneak.
- Kultura eskaintza.
- Kultura politikak.

KULTURGINTZA, ARNASBIDE EMANKOR

HIZKUNTZA GAITASUNA ETA HIZTUN AKTIBOAK (I)

❖ **Kultur hezkuntzak eta kultur esperientziek hizkuntza gaitasuna elikatzen dute (hiztun aktiboak):**

- **Kultura erritual eta esperientzia kolektiboak sortzea: esperientzia partekatu bat bizitzeko bide, elkar ezagutzeko bide, hartu-emanak hobetzeko bide, (hitz) egiteko modu bat garatzeko bide, pertenezia-sentimendua elikatzeko bide.**
- **Kultura jardunetan eta esperientzia estetikoetan trebatzeak aukera ematen du nork bere ahotsa gorpuzteko, nork bere ikuspuntutik izendatzeko mundua.**
- **Kultura jardunek eta esperientzia estetikoek norberak bizi izan dituen esperientziak birpentsatzeko eta birkokatzeko leihoak zabaltzen dituzte.**

KULTURGINTZA, ARNASBIDE EMANKOR

HIZKUNTZA GAITASUNA ETA HIZTUN AKTIBOAK (II)

- **Kultura jardunek irudimena sustatzen dute.** Batetik, irudimenak errealitate alternatiboak sortzeko baliabideak eskaintzen dizkio norbanakoari, baina, baita komunitateari ere.
- **Kultura, munduan lekua hartzeko/egiteko bideetariko bat:** kultur esperientziek eta kultur imajinarioek munduan leku bat egiten laguntzen digute: barne-mundua elikatzen dute, zentzuaren eraikuntzan laguntzen digute (gure buruaren eraikuntzan laguntzen digute, baita mundua ulertzen ere), trukea sustatzen dute, jolaserako espazioa sortzen dute, arakatzera gonbidatzen gaituzte, eta abar.

ERROTZEA: pertinentzia-sentimendua, erritu komunitarioak (jaia, jolasa, pentsamendua/elkarrizketa), kode partekatuak, sinbolo partekatuak, erreferente partekatuak...

KULTURGINTZA, ARNASBIDE EMANKOR

TRANSMISIO-ERAK GOGOETAGAI

- ❖ Transmisio eta bitartekaritza-molde tradizionalak eraldatu dira: familia, plaza, eskola, hedabideak...
- **FAMILIA.** Kultura bizitzeko eta jasotzeko modu berriek belaunaldien arteko transmisio moldeetan eragin: gune partekatuak ahuldu, erritual partekatuak ahuldu.
- **PLAZA.** Erritual partekatu zenbait egiteko oztopoak areagotu: plazen burokratizazioa eta plaza digitalak indartzea.
- **ESKOLA.** Kultur sorkuntzaren berariazko irakaskuntza murriztu da: humanitateen eta kulturaren gutxiespena (ikuspegi produktibistaren ondorioz).
- **HEDABIDEAK.** Kazetaritzaren eta komunikazioaren parametroak aldatu dira: sakabanaketa eta rabiltaileen hautua mugarri.

KULTURA POLITIKEN ETA KULTURA EREDUEN ZOTINAK

ARNASBEHERAK: ahulguneak

- **Hizkuntza politiken, kultura politiken eta gizarte politiken arteko koordinazio eza:** politika integralerako diseinuen premia.
- **Ikuskizunaren kultura sustatu kultura politika askok:** aretoen kultura, programazioaren kultura, publikoaren kopuruari begiratzen dion kultura...
- **Kultura presentziak elikatzen dira:** kultura esperientziak, kultura erritualak edo kultura interpretazioak sustatu ordez (ikuslea vs parte-hartzailea // ikusgarri vs zirrargarri // azala vs mamia).
- **Hiriguneak ardatz kultura politikan:** herri-dinamikak edo herri-guneak ikusezinago.

KULTUR POLITIKEN ETA KULTUR EREDUEN ZOTINAK

ARNASGORAK: indarguneak

- **Kultura eredu komunitario eta parte-hartzaileak sustatzea:** bai kultur praktikak antolatzeko, bai kultur ekimen parte-hartzaileak sustatzeko.
- **Trukerako espazio aproposak sortzea:** kultura praktikak partekatzeko edo elkarrekin bizitzeko edota kultura jardunek sorturiko emozioak, sentrazioak, usteak edo iritziak trukatzeko espazioak.
- **Gizarte-eraginaren araberako balioespena:** kultura praktikak gizarte-ekarpenen ikuspegitik aztertzea (baita hizkuntzaren biziberritzearen ikuspegitik ere).
- **Tokiko kultura sareak eta tokiko kultura ohiturak zein premiak ardatz izatea:** kultura transmisiorako, kultura trebakuntzarako eta kultura zabalkunderako tokiko egitasmo integrala diseinatzea.

KULTURGINTZA KOMUNITARIOA, HAUSPO ERAGINKOR

HAINBAT EREDU

- **AZPEITIA (PLAZA-HEDABIDEAK).** Kultur bilgunetik kooperatibara: Kulturaz Kultur Kooperatibaren egiturapean garaturiko kultur mugimendua: **Dinamoa sormen gunea, San Agustin Kulturgunea, Soreasu Antzokia.**
- ❖ Hiru lan-ildo: ikusgarritasuna, sormena eta transmisioa.
- ❖ Parte-hartze kulturalaren hiru dimentsioak egituratu.

KULTURAZ KOOPERATIBA

Kultura osotasunean sustatzeko kooperatiba herritarra gara.
Kultur ikusgarritasuna, sormena eta transmisioa lantzen ditugu.

Sanagustin kulturgunea, Soreasu Antzokia eta Dinamoa sormen gunea
kudeatzen ditugu.

Gure kultur jardunaren berri izateko, [harpidetu buletinera](#).

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba



SOREASU ANTZOKIA

Soreasu Auzunean z/g
Azpeitia 20730



SANAGUSTIN KULTURGUNEA

Plaza nagusia 5, behea
Azpeitia 20730



DINAMOA SORMEN GUNEA

Soreasu Auzunean z/g
Azpeitia 20730

Parte-hartze kulturalaren hiru dimentsioak



- (1) Kultur jardueretara joatea eta adierazpen-, sormen-, prestakuntza- eta elkarte-praktikak.
- (2) Profesionalen sorkuntza eta ekoizpen prozesuak, eta ordezkaritza kolektiboko erakundeetan parte-hartzea.
- (3) Kultur politikak egiteko, ezartzeko eta ebaluatzeko prozesuetan parte-hartzea, eta baita kultur kudeaketan ere.

Nicolás Barbieri
(2018)

Parte-hartze kulturalerako politikak. Kultur eskubideak
(Eusko Ikaskuntza, 2024)

KULTURGINTZA KOMUNITARIOA, HAUSPO ERAGINKOR HAINBAT EREDU

- **ZARAUTZ (ESKOLA).** EMUNek hezkuntzan soziolinguistika lantzeko egitasmoa abian jarri herriko ikastetxe guztiekin, DBHn. Euskal kulturaren lanketari heldu zaio: euskal kulturaren aurreiritziak auzitan, ikastetxeen kultura-diagnosia, esku-hartzeen diseinua...
- ❖ Giro-kultura (kultura paisaia).
- ❖ Euskal kultura zehar-lerro hezkuntzan.



emun'
Euskara eta
berrikuntza soziala

KULTURGINTZA KOMUNITARIOA, HAUSPO ERAGINKOR

HAINBAT EREDU

- **OIARTZUN (ESKOLA-TREBAKUNTZA GUNEA-PLAZA).** Herriko haur, gazte eta nerabeen trebakuntza, parte-hartzea eta sorkuntza ardatz dituzten kultura ekimenak eta kultura sareak elikatu (Hitzen Lihoa, 1545 Euskal Literatur Elkarte, Ehuntze Sormen Espazioa...).
- ❖ Belaunaldiartekotasuna.
- ❖ Herriko askotariko plazak.



KULTURGINTZA KOMUNITARIOA, HAUSPO ERAGINKOR

HAINBAT EREDU

— AIARALDEAKO BERTSO ESKOLA (TREBAKUNTZA GUNEA): Bertso eskolak, bertso jaialdiak....

- ❖ Komunitate bertsozalea saretzea.
- ❖ Trebakuntza lantzea (zaletzeko bide).
- ❖ Eskualdea saretzea > lurraldearen kulturgintzan eragitea.

— ONDARRU (TREBAKUNTZA GUNEA): Etxelila. Jabekuntza Eskolak eta Ahalduntze Eskolak euskal kulturaren ikuspegitik elikatu.

- ❖ Gizarte-kezka bat euskal kulturatik ase.
- ❖ Euskaratik eta euskal kulturatik aritzeko gune eta sare feministak elikatu.



KULTURGINTZA KOMUNITARIOA, HAUSPO ERAGINKOR

HAINBAT EREDU

– DOINUELE, EUSKARAZKO PLAZEN SAREA.

Azkoitia, Baztan, Galdakao, Hernani, Lazkao, Sara, Zarautz eta Ziburu.

❖ Tokiko herri-ekimenen sarea.



– **Baztan (plaza):** (H)Ilbeltza. Euskal Nobela Beltzaren Astea.

❖ Tokiko ikuspegitik ekin eta erantzun kanpo-errepresentazioei eta turismo-begiradari.



– **Sara (eskola-plaza):** Ikusi Mikusi azoka. Haur eta Gazte Literatura Azoka.

❖ Herriko eskolarekin eta kulturgintzarekin zubiak.



KULTURGINTZA KOMUNITARIOA, HAUSPO ERAGINKOR

Jardun eraginkorrek bildutako ezaugarri zenbait

- Tokiko kultur sareek sustaturikoak.
- Tokiko kultur tradizioak, kultur praktikak eta kultur zaletasunak ardatz.
- Tokiko kezka, premia edota gose bat asetzeko sorturikoak.
- Tokikotasunetik eskualdearekin (edota Euskal Herriarekin) zubiak eraikitze bideak bilatu.
- Elkarlanez eta auzolanez elikaturiko egitasmoak.
- Amateurtasunari eta herri-jardunari leku berezia eskaini zaie.
- Errotze-prozesuak elikatzen dituzte.

Mila esker

Iratxe Retolaza